

EROSKI-K 90.000 MASKARA EMAN DIZKIO GASTEIZKO UDALARI

Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 25a.- [EROSKI](#)k Gasteizko Udalari dohaintzan emandako 90.000 maskarak kolektiborik zaurgarrientzat joango dira. Horiek ari dira gehien sufritzen COVID-19ak eragindako krisi honetan, eta osasun aldetik babestuko dituen materialean behar dira, kutsadurak saihestea funtsezkoa baita. Guztira, 1.000.000 maskara emango ditu dohaintzan gehien behar duten 10.000 familiarentzat baino gehiagorentzat, eta 70 bat erakunde publiko eta gizarte erakunderen bitartez banatuko dituzte. EROSKI horrelako ekimenak gauzatzen ari da pandemia hasi zenetik; esaterako 6,5 milioi otordu eman zizkien Elikagaien Bankuei eta martxotik %80 jaitsi du maskararen prezioa.

Ariznabarreko EROSKI Centerren eman dute materiala, eta bertan izan dira Gorka Urtaran alkatea eta Josean Yela EROSKIren Harreman Instituzionaletarako zuzendaria.

"Oso eskerturik gaude EROSKIren elkartasun erakustaldi honegatik. Dohaintza hau laguntza handikoa izango da guk ematen ditugun zerbitzuetan eta lantzen ditugun proiektuetan, zailtasun gehien dituztenengana iristen saiatzeko", esan du Gasteizko alkateak, Gorka Urtarnek.

"EROSKI eta proiektuaren parte garenok konturatzen gara zinez nola ari den eragiten krisi hau herritarren egunerokoan. Pandemia hasi zenetik ekinbideak jarri ditugu martxan bidea errazteko egoera zaurgarrian diren familia eta pertsona horiei. Gasteizko herritarren eskura egongo gara, gu ere haren parte gara eta", esan du EROSKIren Harreman Instituzionaletarako zuzendariak, Josean Yelak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)